

OGP EUSKADI – FORO ERREGULARRAREN BILERA

SAIO BIRTUALA – 2021eko MARTXOAREN 30a

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. II. Planaren konpromiso-ildoetan eta ikuspegi estrategikoan egindako aurrerapenak 2. Foro erregularraren ekarpenak eta iruzkinak 3. Hurrengo urratsak
Iraupena	10:00 - 12:45

ERAKUNDEA	PERTSONA	BERTAN
Eusko Jaurlaritza	Miren Martiarena - Gobernu Irekiaren zuzendaria	BAI
Eusko Jaurlaritza	Javier Bikandi - Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Lexuri Ugarte - Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	María Presa – Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzako aholkularia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Mikel Pagola – Herritarren Partaidetzarako zuzendari nagusia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Itziar Calvo – Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko zerbitziburua	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Goizeder Manotas – Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendari nagusia	BAI
Bilboko Udala	Amagoia Ibarrodo – Kalitate eta Ebaluazioko zuzendaria	BAI
Donostiako Udala	Manu Narváez - Lehendakari zuzendaria	BAI
Gasteizko Udala	Borja Rodríguez – Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzia	EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola. – Berrikuntza Publikoko zuzendaria	BAI
Ibatuz	Antxon Gallego	BAI
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	EZ
Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea	BAI
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe	BAI
Sareen Sarea	Mikel Barturen	BAI
Unicef Euskadi	Elsa Fuente	Bertaratu ezina adierazi du
Eusko Ikaskuntza	Beatriz Akizu	EZ
Arabako Kontzejuen Elkarte	Joseba Terreros	EZ
Idazkaritza teknikoa	Koldobike Uriarte - <i>proiektuaren arduradun teknikoa</i> Goizalde Atxutegi - <i>Innobasqueren proiektuen arduraduna</i>	

SARRERA

Miren Martiarenak ongietorria eman die Foro Erregularreko kideei, eta eskerrak eman dizkie bileran parte hartzeagatik. Era berean, bileran landu eta aztertu beharreko gai nagusiak aurkeztu ditu:

- Planaren konpromiso gisa txertatzeko ekintza-ildoen aurrerapena, aztertze
- Ikuspegi estrategikoaren dokumentua, aztertze

KONPROMISO-ILDOAK

Konpromisoaren arduradun/ardurakide bakoitzak aurkezpen labur bat egingo du (aurrerapenak, egungo egoera, eta abar), hizkera errazean, Foro Erregularrean aztertze eta, agian, Foro Irekian aztertu beharreko plan berriaren konpromiso gisa txertatzeko.

KONPROMISO-ILDOA	AURKEZLEA
K1.- COVID19aren hiri-behatokia, eta zerbitzuak herritarren beharretara egokitzea	Donostiako Udala
K2- Aurrekontuen arloan gardentasuna eta kontuak emateko tresna	Gipuzkoako Foru Aldundia
K3 - Open Eskola: Herritarren garapena eta indartzea	Gipuzkoako Foru Aldundia
K4- Legegintza-/araugintza-/erregelamendugintza-ekimenak lantzeko proposamenak eta atxikimenduak biltzeko tresna	Eusko Jaurlaritza
K5 -ALTXOR - Adinekoren bizi-proiektuei informazioa, orientazioa, bitartekaritza eta laguntza emateko online zerbitzua eta bulego pilotu erdipresentzialak	Innobasque

FORO ERREGULARRAREN EKARPENAK

- Balorazio positiboa egin da aurkezpenetan erabilitako **hizkera errazaz** eta konpromiso bakoitzaren **helburua zein den zehazteko** egindako ahaleginaz (helburu *zehaztuagoak eta errealitateari lotuagoak*). Plana norantz doan ikusten laguntzen du, eta herritarrek parte hartzeko beharrezko oinarria da. Era berean, azpimarratu da herritarren parte-hartzea produktiboa izateko erakundeek (eta horietan lan egiten duten pertsonak) herritarren proposamenei "harrera" eraginkorra egin behar dietela.

Ildo horretan, erakundeetan parte-hartzearen kultura sustatzeko beharra ikusi dute, eta, horretarako, beharrezkoa da gaitzea, prestakuntzari tokia egitea eta erakundeetan lan egiten duten pertsonen baliabideak ematea.

- Azpimarratu da aurkeztutako ildoek lehenengo planeko **herritarren eskariei** eta **COVID osteko egoera berriari** erantzuten dietela, hori ere herritarren erantzukidetasunaren ildoan.
- Konpromisoak diseinatzean eta zabaltzean kontuan hartzeko **gomendio orokor batzuk** proposatu dira:
 - Bereziki eragitea benchmarkingean (egoera honetan izango du baliorik handiena)
 - Erakundeak buru dituzten ekimenak edo ekintzak abian daudenetan, horiek kontuan hartzea eta hasieratik bertatik konpromisoarekin lotzea.

- Zalantza sortu da, ea II. Planaren **2. eta 3. konpromisoetan** nola landuko den aurreko planean diseinatutako tresna (**Open Eskola**) eta **Integritatearen euskal sistema**:

3. konpromisoan herritarren erantzunkidetasuneko edukiak landuko dira, abian jarritako Open eskoletan eta herritarrek parte hartzeko dauden beste gune batzuetan (adib.: Gipuzkoa Eskola Irekia) aplikatzeko modukoak. Lehenetsunez, eten digitalari eta herritarren integritateari helduko zaie, integritatearen euskal sistema gidatu zuen taldearekin lankidetzan. 2. konpromisoan kontuak emateko eredu bat landuko da, aurrekontu ekonomikoekin lotuta. Horretarako, aurreko planean agintaldiko planetan oinarrituta egindako lana ere hartuko da erreferentziazat, baina orokortzearen ikuspegitik.

- Galdetu da **ea orain artean zein izan den herritarren parte-hartze/lankidetzeta maila** aurkeztutako konpromisoen edukiak garatu eta aztertze orduan, eta ea zein herritarrek eta **zein profilek** egingo duten lan konpromiso bakoitzean.

Erantzun da **eragileen parte-hartze maila eta zehaztapen-maila ez direla berdinak konpromiso bakoitzean**, baina konpromiso guztietan diseinu- eta hedapen-estrategia elkarlanean lantzea aurreikusten da.

K1, K2 eta K3n, orain arte lana barnekoa izan da, baina, gonbidapena bidali ondoren, dagoeneko jaso dituzte gizarte zibileko entitateen eskaerak konpromiso-taldean parte hartzeko. K4ren kasuan, hasierako konpromiso-taldea eratu da, taldearekiko konpromisoaren edukiak aztertu dira, eta gizarte zibileko entitate batek hartu du kolidergoa (Arantzazu LAB). Azkenik, K5en kasuan, Euskadiko Adinekoen Batzordea osatzen duten adinekoen entitateekin aztertu da, konpromisoan zehar kodiseinu funtzioak beteko dituzte eta.

- Ildo horretan, II. Plan honetan **lidergo partekatutako dakarren aukera** azpimarratu da, eta funtzio hori nork bere gain hartzeko **epeak zein diren argitzeko eskatu** da; izan ere, funtzio horren berri eman zitzaion Foro Erregularreko kideei, eta konpromisoren batean kolidergoa izateko hasierako interesa erakusteko eskatu zitzaion.

Erakunde batek eta gizarteko entitate batek **partekatutako lidergoa** berrikuntza bat da egungo planean: entitate zibiko batek konpromiso baten kolidergoa izan dezake. Horrek esan nahi du lehenetsunezko erakunde zibiko bat dagoela kodiseinuan, azterketan, jarraipenean eta ebaluazioan ..., ekintzak OGP parametroekin egiten direla bermatuz. Lankidetzeta-maila gizarte zibileko entitateen konpromiso eta prestutasunaren araberakoa izango da: baliteke puntu edo une batzuetan beste batzuetan baino presentzia handiagoa izatea; ez dakar lidergoa duen erakundeak dituen erantzukizun berak bere gain hartzea.

Uztailaren 18ra arte, Foro Erregularra osatzen duten gizarte zibileko entitateek (edo konpromiso-taldeetako beste parte-hartzaile batzuek) kolidergoa eska dezakete. Hainbat entitatek interesa agertu dute, eta bat egiterik baduten baloratuko dute. Alde horretatik, 3. konpromisotik, Foro Erregularreko entitateak gonbidatu dira konpromisoa garatzen laguntzera funtzio horretatik, herritarren ikuspegia erabakigarria baita konpromiso hori diseinatzeko eta hedatzeko.

Onartu da 5 ekintza-ildoak Euskadiko II. OGP Planaren konpromiso gisa sartzea, uztailaren 12ko Foro Irekian aztertzeko.

IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Koldobike Uriartek ikuspegi estrategikoaren dokumentua aurkeztu du, eta proposatu du Euskadiko II. OGP Planaren ebaluazio-funtzioak bere gain har ditzala EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Sailak, Jaione Mondragon eta bere taldearen eskutik.

Ikuspegi estrategikoko dokumentua baliozkotu da, eta OGP Euskadiren printzipioak eta lankidetzaren ereduak behar bezala jasotzen dituela nabarmendu da. Halaber, Foro Erregularreko kideei eskatu die, gizarte zibilaren ikuspegia ordezkatzen dutenez, dokumentuaren hasierako atalean beren ikuspegia txertatzeko, hala nahi badute.

Foro Erregularrak positiboki baloratu du euskal unibertsitate publikoa OGP prozesuan sartzea, erakunde ebaluatzaile, gobernu irekiaren estrategia gisa. Eusko Jaurlaritzak horri buruzko bilera bat egingo du EHUko taldearekin, haren parte-hartzea zehazteko.

HURRENGO URRATSAK

- Uztailaren 12ko Foro Irekiari dagokionez, **Foro Erregularrari online edo aurrez aurre parte hartuko duten baieztatzeko eskatu zaio.**

Berlaratuko direla baieztatu dute: Arantza Otaolea (Bilboko Emakumearen Kontseilua), Goizeder Manota, Mikel Pagola eta Haritz Ugarte (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta Leyre Vitorica edo María Presa (Bizkaiko Foru Aldundia). Birtualki parte hartuko dutela baieztatu dute: Maialen Olabe (EGK) eta Ana Molina (Mestiza Elkartea).

- **Gizarte zibileko Foro Erregularreko entitateek, uztailaren 18a baino lehen, idazkaritza teknikoari honako hauek helarazteko konpromisoa hartu dute:**
 - Konpromisoen kolidergorako proposamena, egoki iruditzen bazaie.
 - Egoki iruditzen bazaie, gobernu irekiari buruz duten ikuspegia jasoko duen testu laburra, ikuspegi estrategikoaren hitzaurrean txertatzeko.